

IZEN SINTAGMEN ARTEKO JUNTADURA DELA ETA

Eta emendiozko juntagailuaren bidez kasu-marka bereko izen sintagmak, nahiz sintagmaren barneko osagaiak junta ditzakegu, hurrengo bi adibideek erakusten duten bezala, hurrenez hurren:

Lagunez, adiskideez eta etxekoez mintzatu ziren.

Lagun, adiskide eta etxekoez mintzatu ziren.

Bigarren adibidean, izenak juntatzen ditu *eta* juntagailuak, ardatz anitzeko sintagma osatuaz.

Literatura tradizioan bi egitura horiek nola erabili diren azaltzea eta gaurko erabilera okerrak saihesten ahalegintzea da arau honen helburua.

* * *

1. Kasu markadun sintagmak noiznahi junta daitezke. Batez ere sintagmak singularrekoak direnean, hau da tradizioan ageri den juntabidea (EGLU, IV, 33):

Galeperra da gari artetan ta galonduetan oi dabillen epertxuba (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 179).

Jaungoikoari eta lagun urkoari zor diogun amorioa (J.B. Aguirre, *Erakusaldiak*, III, 435).

Mandozainari eta mandoeri mintzo zen denbora berean (J.B. Elissamburu, *P. Adame*, 26).

Esaidazu zer gura dozun: Zeuk, emaztiak eta neuk bakarrik apaldutia, edo etxeko guztiok aladabatera? (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 179).

Andre dena Mariaz eta bertze saindu batzuez mintzo (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 164).

Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean (Otoitza).

* * *

2. Kasu markadun sintagmak juntatu gabe ere, hondarkirik gabeko izenak edo izen taldeak ere junta daitezke, ardatz anitzeko izen sintagmak osatuz (EGLU, IV, 33). Sintagmak pluraleko hondarkia hartzen duenean ageri da batez ere juntabide hau:

Eremu ta basoetan, bere gorputza lazki nekatzen zuala (J.A. Ubillos, *Kristau doktriña berri-ekarlea*, 75).

Abere ta artaldeak ikusten egurastu zirean arratsalde guztian (J.M. Echeita, *Josetxo*, 318).

Len errierta eta alkar eziñ ikusi eta gorrotoa besterik etzan etxe eta baserrietan pakezko eta kontentuzko, estimaziozko eta amorezko biziera sartu zan (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 140).

Ondorengo adibidean, esaterako, izenak juntatzen dira sintagma osoak pluraleko hondarkia hartzen duenean, eta kasu-sintagmak, ostera, singularrekoak direnean:

Igande eta phesta egunetan, jaun erretorak bere jendea bil dezala, mezarat eta predikurat bezala, bezperetarat ere (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren Eguna*, 125).

Singularreko sintagmak izan arren, izen juntadura aurki daiteke, bereziki esanahiaz oso hurbil diren izenak juntatzen direnean:

*Behala ematen dute gero jakin lekhuan, burdin katea duela **zango eta eskuan*** (Etxeberri Ziburukoa, *Manual debozinezkoa*, 94).

*Gaxua, bera bai jan ebela laster **bele ta miruak*** (F. Bilbao, *Ipuin Barreka*, 53).

***Joko ta nagikerian** igaro ditu egunak eta urteak* (D. Aguirre, *Garoa*, 367).

*Zu egongo zera emen aientzat **zorion ta pakea** eskatzen* (D. Aguirre, *Garoa*, 342).

*Sartu zan **korputz eta animan** Satanas edo deabrua* (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 121).

*Osasun egunetan atsegin eman behar dioela, **estura ordu ta gaixotasunean** adiskide ongilletzat iduki nai dituenak* (V. Mogel, *Ipui onak*, 24).

Edo izenlagunaz edo izenondoaz lagundurik doazenean izenok:

*Bialdu egizuz neure **erri ta etxera*** (Moguel, *Peru Abarka*, 193).

*Ezin kendu nuen nik **nere buru ta biotzetik** gogamen au* (Azkue, *Ardi galdua*, 120).

*Umien zorionari baño, **euren, gurasoen, uste ta gogoari** geiago ta obeto begiratu oi deustielako* (D. Aguirre, *Kresala*, 107).

***Laguntza ta sari aberatsenak** zagizkoten* (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 76).

Azken adibidean bezala, bi izen juntaturen ondoren izenondoa ageri denean, zalantzak sor daitezke izenondoaren hedaduraz, hau da, ez da argi ikusten izenondoa bi izenei dagokien ala azkenari bakarrik. Kontsidera ondoko adibideok:

***Unibertsitateko kargudun eta langile berriek** bihar bildu beharko dute:*

Berez izen sintagmak ez du mugarik ematen interpretazioaren aldetik : kargudunak unibertsitatekoak izateaz gainera berriak izan daitezke, edo ez, eta langileak, berriz, berriak izateaz gainera, unibertsitatekoak izan daitezke, edo ez. Irakurketa guztiak zilegi dira gramatikaren ikuspuntutik.

Horiek horrela, adierazi nahi den egoeran bai kargudunak eta bai langileak, unibertsitatekoak eta berriak badira, orduan guztiz egokia da aurreko erabidea.

Alderantziz, demagun adierazi nahi den egoeran unibertsitateko kargudunak (berriak nola zaharrak), eta langile berriak (ez baitezpada unibertsitatekoak, baina kontestuan emana den erakunde edo toki batekoak) aipatzen direla. Aurreko informazio inpliziturik gabe, goragoko adibidearen irakurketa hori, zilegi izan arren, zail gertatuko da, eta horretaz delako juntabidea ez egokia. Nahiz kasu honetan ere ambiguitatea ez den kendua (bigarren juntagaian izenlaguna ezabatua izaten ahal baita), menturaz, argiago da orduan kasu marka bi juntagaietan agerraraztea :

***Unibertsitateko kargudunek eta langile berriek** bihar bildu beharko dute:*

Hemen esandakoek berdin balio dute beste egoeretan ere. Adibidez, izen ardatz bakar bati dagozkion bi izendondo direnean, izenondoen zuzeneko juntabidea hobetsiko da kontrako arrazoirik ez bada testuinguruan :

euskaltzale zintzo eta leialari

(nahiz beste bidea ere gramatikoki zilegi den, eta beharbada testuinguru batzuetan -indar emateko, adibidez- guztiz baliagarri: *euskaltzale zintzoari eta leialari*).

Gauza bera gertatzen da izenlagunekin:

fakultateko eta hiriko kargudunen aldeko hitzak (beste bidea, gramatikoki huts gabekoa izanagatik, korapilatsua da : *fakultateko kargudunen eta hirikoen aldeko hitzak*).

* * *

3. Kasu-markadun sintagma eta mugatzailedun sintagma juntatzea, ordea, ez da gramatikala (EGLU IV, 42-43):

***Hemengo nagusia eta hango langileei** mintzatu zitzairen

***Itsasoa eta mendietan** ibili naiz

***Gizon hau eta emazteki hark** egin dute

***Abereak eta jendeez** mintzo naiz

Pertsona izenordeek berez izen sintagma mugatuak osatzen dituztenez gero, juntatzen direnean, hondarki osoa (hau da, kasu marka eta guztikoa) izan behar dute (EGLU IV, 34-35). Gaizki eratuak dira 'beraz' ondoko formak, lehen juntagaiak, pertsona izenordea izanik, ez baitakar kasu markarik:

***Zu eta niri** gertatu zaigu

***Ni eta zuk** egingo dugu

***Gu eta zuetaz** mintzatu ziren

Aurreko puntuetan aipatu ditugun jokabide horiek oraintsu arte oso molde trinkoan irauin dute euskarazko literaturan eta komeni da euskara batuan eta euskara jasoan haien arabera aritzea.

* * *

4. Azken urteetako erabileran, ordea, ez da zaila aurreko puntuan gaitzetsi ditugun juntaturak bezalakoak aurkitzea, hau da, juntaturako lehen osagaia sintagma mugatua, eta bigarrena kasu-markadun sintagma dutenak:

***Zure senarra eta alabaz** hitz egin behar dizut

***Zure emaztea eta alabek** egingo dute

***liburuaren edukia edo itxurari** buruzko kritikak

***liburuaren hastapena eta bukaeran**

***itxaropena edo esperantzari** bidea eginez

***ingeleza eta frantsesari** buruz

Egitura hauek guztiak, gramatikalak ez diren heinean, baztertzekoak dira euskara batutik eta euskaratik beretik (zeinahi mailakoa den euskararen erabilera, estandarra edo beste maila batekoa).

Lehen bi puntuetan adierazi bezala, aukeran izan dezakegu kasu-sintagmak juntatzea edo izen soilak. Beraz, goiko adibide horien ordain zuzenak beste hauek izango lirarteke :

Zure senarraz eta alabaz edo **zure senar eta alabaz**

Zure emazteak eta alabek edo **zure emazte eta alabek**

Liburuaren edukiari edo itxurari edo **liburuaren eduki edo itxurari**

Liburuaren hastapenean eta bukaeran edo **liburuaren hastapen eta bukaeran**

Ingelesari eta frantsesari buruz edo **ingeles eta frantsesari** buruz

eta abar.

Kontuak askoz nahasiagoak dira oraindik gaurko erabileran, genitibo edutezkoa dakarten izen sintagmen kasuan. Hogeigarren mendea arteko testuetan gaineratiko izen sintagmekin bezalako juntaturak egiten ziren genitibo edutezkoa zegokien sintagmekin ere:

Sinhesten dut (...) **zeruaren eta lurraren** kretzaillean (Gazteluzar, *Egia katolikak*, 38).

*Arana Goirirekin bizkaitar literaturaren garaipena dator, hark fundaturiko **alderdi politikoaren eta aldizkari**en bitartez Euskal Herri osotik zabalduen zena* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 381)

Azken urteetako testuetan, ordea, « sintagma mugatua *eta* genitiboko sintagma » egitura zabalduz doa. Bereziki deigarria gertatzen da *-(r)en* artean postposizioaren erabilera. Literaturan, *-(r)en eta -(r)en arteko* nahiz « izena + izena *-en arteko* » egiturak ageri dira, hots, 1. eta 2. puntuetan esandakoaren araberakoak:

*Zein hil ukhan baituzue **tenplearen eta aldarearen artean*** (Leizarraga, *Mateo*, 23, 35)

*Zein baita **Otsagabiren eta Larraneren artean*** (Oihenart, *Atsotitzak*, 6)

Sü eta txilimisten artian (Belapeyre, *Catechima laburra* II, 73)

*Ezagutzen du zer diferentzia den **kreatzaillearen eta kreaturen artean, eternitatearen eta denboraren artean*** (Chourio, *Jesu-Christoren Imitacionea* III, 34, 2)

Atsegin eta kontentuen artean (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 574)

Irokes barbaro ta jentilleen artian (Juan Jose Moguel, *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidiac*, 257)

Gure etxian eta zuenan artian dago kalia (T. Etxebarria, *Lexicon del euskera dialectal de Eibar*), *Euskera* X-XI (1965-1966) 168. orr.

*Hemen **ahaide eta adixkideen artean** beren azken egunen gozoki iragaiteko* (J. Etxepare, *Buruxkak*, 206)

Gaur, aldiz, horrelakoak entzun eta irakur ditzakegu:

***Gobernua eta sindikatuen arteko gatazka**

***Gurasoak eta ikastolen arteko bilerak**

Halere, kontuan izanik juntamolde berri hau ez dela hainbeste hedatu, eta edozein modutan ez di-tuela tradizioko beste bi juntabideak indargabetu, ez dugu uste gomendatzekoa denik euskara batuan. Horien ordeaz, behin eta berriz ikusi ditugun aukerak genituzke:

Gobernuaren eta sindikatuen arteko gatazka

Gurasoen eta ikastolen arteko bilerak

gobernu eta sindikatuen arteko

guraso eta ikastolen arteko

ARAU

Izen sintagmen arteko juntadura dela eta, tradizioko erabilerak kontuan harturik, Euskaltzaindiak ARAU hauek ematen ditu euskara baturako:

1. Kasu-marka bera dakarten sintagmak beti junta daitezke:

Bilboko jokalariek eta Bermeoko arraunlariek batzarra egin dute

Zuri, niri eta beste askori gertatu zaigu

Zure etxeaz eta gure lanbide berriaz mintzatu dira

Baionatik, Bilbotik eta Gasteiztik omen datoz ikasle horiek.

2. Hau da erabili behar den juntabidea, pertsona izenordainak elkartzen direnean:

Zuk eta guk egingo dugu (eta ez ****zu eta guk egingo dugu***)

Niri, zuri eta beste lagunei gertatu zaigu (eta ez ****ni, zu eta beste lagunei gertatu zaigu***)

Gutaz eta zuetaz mintzo dira (eta ez ****gu eta zuetaz mintzo dira***).

3. Halaber, singularreko sintagmetan, kasu-markadun sintagmak juntatzea gomendatzen da:

Itsasoan eta lehorrean bizi diren narrastiak

Eskuz eta palaz jokatzen du

Amarekin eta amamarekin bizi da.

Juntatzen diren izenak oso hurbilekoak direnean, edo izenlagunaz nahiz izenondoaz lagundurik doazenean, ardatz anitzeko sintagma osa daiteke, kasu-marka amaieran ezarriaz:

Gorputz eta arimatik atera den oihua

Bere emazte eta alabari galdetu zien.

4. Pluraleko sintagmetan, izenak ere junta daitezke, kasu-marka amaieran emanaz. Kasu-sintagmak juntatzea edo izenak juntatzea, aukeran izaten da orduan:

Itsaso, mendi eta basamortuetan ibili da

Maite ditut lagun eta ahaideak

Adiskide eta lankideei kontatu diet

Meatze eta lantegietatik atera den oihua

Maite ditut eguzki, zeru eta izarrak.

5. Determinatzailea duten kasu-markarik gabeko izen sintagmak ezin junta daitezke kasu markadun sintagma batekin:

****Mendia eta itsasotik heldu da ura***

****Adiskideak eta lagunez mintzatu zara***

****Burua eta zangoei behatu nien***

****Bihotza eta buruak horretaratzen nau(te)***

****Gizon hau eta emakume hark esango dizute.***

Genitibodun sintagmetan ere ez da zilegi sintagma mugatu soila eta genitiboko sintagma juntatzea:

****Ikastolak eta gobernuaren arteko bilerak***

****Irakaslea eta ikaslearen arteko harremana.***

(Euskaltzaindiak, Donibane Lohizunen, 2000ko uztailaren 21ean onartua)